



ABALTZISKETA

## **2018KO OTSAILAREN 5EKO BILKURA BEREZIKO AKTA**

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Adur Gorostidi. Zinegotzia

Kepa Gorostidi. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Aritz Garmendia. Zinegotzia

Jose Mari Egunez. Zinegotzia

Mikel Senperena. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

1. Abaltzisketako Ganaduzale Elkarteak eta Abaltzisketako Larrunarri Ehiza Elkarteak luzatutako idatzia aurkeztu eta berarekin bat egitea proposatzea.

### **1- ABALTZISKETAKO GANADUZALE ELKARTEAK ETA ABALTZISKETAKO LARRUNARRI EHIZA ELKARTEAK LUZATUTAKO IDATZIA AURKEZTU ETA BERAREKIN BAT EGITEA PROPOSATZEA.**

Udal honetan aurkeztu den idatzi honi onarpena eman eta bat egiteko proposamena bideratu da .Idatziak hitzez hitz honela dio:

“ABALTZISKETAKO GANADUZALE ELKARTEAK eta ABALTZISKETAKO LARRUNARRI EHIZA ELKARTEAK,

AHO BATEZ:



ABALTZISKETA

## ONDORENGOA ADIERAZI NAHI DUGU:

-LEHENA: Podemos-Ahal Dugu eta Mora andreari eskatu nahi diogu uzteko Batzar Nagusietako epeletik emandako prentsaurrekoak eta etortzeko arazoa dagoen lekura, lokatzetara. "Apoyo at sector primario firme y sin fisuras" esatea nahikoa ez delako, orain arte ez duelako inongo harremanik izan hemengo eragileekin.

-BIGARRENA: Arantxa Ariztimuno andreari gure aitortza egin nahi diogu, Legealdi honetan mendiaren jabetzarekin eta sektoreko eragileekin egiten ari den lanarengatik. Adibide garbiena Goroskintxuko bidea da, bukatu eta urtebetera egoera bikain batean dagoelako, kontserbazioaren izenean hondamendia ikusten zutenen iritziaren kontra.

Aurrerantzean ere gure babes osoa eskeini nahi diogu.

-HIRUGARRENA: Parke Naturalak 2 hamarkada bete dituen honetan, PORROT egin duela, bere lege debekatzailen interpretazio zorrotzari esker. Gestio eza ekarri duelako, gestio ezak utzikeria eta utzikeriak desoreka. Horren adibide nabarmena da baso eta larreetan otea, garoa, larra edo elorria ugaritu dela eta baita ere akaina, basurdea, orkatzak eta saia bezelakoak, kontrolez kanpo daudenak. Paisaian ere galera nabarmena izan da. Beste behin agerian geratu da mendiak bertatik kudeatu behar direla, ez hirietatik.

-LAUGARRENA: Azkenik dei egiten diegu Enirio-Aralar Mankomunitateko beste Udallerri eta eragileei (nekazal sindikatu, elkarte, mendizale, abeltzain, ehiztari...), Aralarko kudeaketan arduraz jokatzeko eta erabakietan parte hartzeko, aurreko belaunaldiek egin zuten bezela.

Mendi honek etorkizuna izango baduk, bertan eragileen eskuetatik etorriko delako."

Mahaikideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1. Abaltzisketako Ganaduzale Elkarteak eta Larrunarri Ehiza Elkarteak luzatutako idatzia onartzea eta idatziarekin bat egitea.



**ABALTZISKETA**

2. Eta dagokion lekuan aurkezteko, Alkatea baimentzea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat eman zen, arratsaldeko 19:30etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak